

HAUTESKUNDEAK. Bi alderdietako botoemaileak «aspertuko» diren beldur da EAJren EBBko presidentea

Arzalluzek dio EAJ eta EA ados jarri direla Araban eta Gipuzkoan

Elkarrizketak «zentzu positiboan eta eraikitzailean» egiten ari direla dio Larreinak

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Xabier Arzalluz EAJren Euzkadi Buru Batzarreko presidentek adierazi zuen atzo EAJ eta EAko zuzendaritzak «puntu guztietan» ados jarri direla Araban eta Gipuzkoan datozen udal hauteskundeei begira koalizioa sortzeko. «Bizkaian ez dakit; Bizkaian gogorragoa izango da, seguru asko», adierazi zuen Arzalluzek Euskal Telebistan egindako elkarrizketan batean.

Bi alderdiek bilera izan zuten herenegun, koalizio akordioa lortze aldera. Izan ere, iragan abenduaren 11n elkarrizketak eten egin zituzten, bi aldeek arteko desadostasunak tarteko. EAJk akordioa globala izatea nahi du, eta EAK, berriz, tokian tokikoa. Herenegungo elkarrizketa txandan jarrerak gerturatu egin zituzten bi alderdiek. Las-ter berriro biltzeko asmoa azaldu dute.

Gai horrekin «aspertuta» dagoela aitortu zuen Arzalluzek, eta, era berean, bi alderdietako botoemaileak ere «aspertuko» diren kezka azaldu zuen. «Nik hainbeste gauza esango nituzke, baita EAK ere gure kontra. Baina erdian jendea dago, eta 'horretan ere ez zarete konpon-tzen' esango dute. 'Orduan, hor

XABIER ARZALLUZ

EAJren EBBko presidentea

«Erdian jendea dago, eta 'hortan ere ez zarete konpontzen' esango dute. 'Orduan, hor konpon'. Hori da nire beldurra»

RAFAEL LARREINA

EAKo Antolakuntza idazkaria

«Zentzu positiboan eta eraikitzailean lan egiten ari gara. Eta ikusiko dugu zertan zehazten den lan hori»

konpon'. Hori da nire beldurra», esan zuen EAJren EBBko presidentek. Abertzaleek «boto beharra» dutela iritzi zion Arzalluzek: «Mayor Orejak-eta, botoak banan-banan kontatuko dizkigute». Horri aurre egiteko, koalizioaren formula ontzat jo zuen, jende asko «mugitzen» duelako.

Elkarrizketa «serioak» direla dio Larreinak

Rafael Larreina EAKo Antolakuntza idazkariak ere hizpide



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Onintza Lasa eta Rafael Larreina, atzoko prentsaurrekoan.

izan zituen EAJ eta EAren arteko elkarrizketak, Onintza Lasa EAKo Komunikazio arduradunarekin egindako prentsaurrekoan.

Kazetarien galderei erantzunez Larreinak adierazi zuenez, bi aldeak «serio» ari dira lanean elkarrizketa mahaian, «zentzu positiboan eta eraikitzailean. Eta ikusiko dugu zertan zehazten den lan hori». Ez zituen ze-

haztasun handirik eman nahi izan: «Elkarrizketak eta negoziazioak modu serioan egiten direnean, negoziazio mahaian hitz egiten da, eta ez iritzi publikoaren aurrean».

Bi alderdiek erabakia «lehenbailehen» izatea nahi dutela jakinarazi zuen Larreinak: «Bi aldeek lehenbailehen hartzea nahi dugu». Dena dela, ez zuen eperik jarri nahi izan.

den banaketarako irizpideak. Bi alderdien ezintasuna zela medio, abenduaren 26ko bilera atzeratzea erabaki zuten. Ondorengo egunetan, baina, EAJ-EA koalizioa osatzeko azken ahalegina egiteko deiak egin zituzten EAJko eta EAKo burukideek. Aralarrek atzo jakinarazi zuenez, orduan erabaki zuen EAren hitzarturiko lan egutegia bertan behera uztea.

Aralarrek esan zuenez, gertakariak jakinaraziz ez dute «polemizarik» eragin nahi, «gauzak argitu baizik». EAJ eta EAren arteko negoziazioa «begirunez» hartzen dutela berretsi zuen Aralarrek.

Aralarrek dio abenduan EAren harremanak izan zituela koalizioaren aukera aztertze

Humberto Unzueta | **BILBO**

Udal eta foru hauteskundeetan akordio baten aukera aztertze-ko Eusko Alkartasunarekin harremanak izan dituela eta gero bertan behera gelditu direla jakinarazi zuen atzo Aralar alderdiak, prentsa ohar baten bidez. Eusko Alkartasunak, ordea, ukatu egin zuen. «Eusko Alkartasunak erabat ukatzen du Aralarrekin udal eta foru hauteskundeetan akordioaren bat lortzeko helburuarekin negozi- ziorik izan dela», esan zuen

EAK atzo kaleratutako prentsa oharrean. Aralarrekin elkarrizketak izan dituela aitortu, baina hauteskundeei begira negozi- ziaziorik ez duela hasi nabar- mendu zuen EAK.

Aralarrek, berriz, aurretik esandakoari eutsiz, zenbait zehaztasun eskaini zituen EAren ukapenaren berri izan ondoren. Aralarrek jakinarazi zuenez, Gorka Knörr EAKo idazkari nagusia eta Rafa Larreina antolaketa idazkaria Iñaki Aldekoa eta Gorka Iriondo Aralarreko kideekin bildu ziren

abenduaren 17an. Bileran lan egutegi bat hitzartu zuten: abenduaren 26an hasi behar zen, eta urtarrila amaierarako bukatu. Alderdietako ordezkari- zek ostegunero biltzeko kon- promisoa hartu zuten akordio baten gainean ados jartzeko, Aralarren bertsioaren arabera. Bileran, halaber, negozi- ziazioa hiru gai nagusiren inguruan bil- duko zela hitzartu zuten: koal- izioaren esparrua (orokorra, to- kian tokikoa ala erakunde- arabera); programen edu- kiak; eta hauteskunde zerren-

LABURAREN

Abertzaleekin gobernu itunik egitea baztertu du Buenek, «burujabetza» hautatzen duten artean

Miguel Buenek, Gipuzkoako Batzar Nagusietako PSE-EEren bozeramaile eta ahal- dun nagusi izateko PSE-EEren hautagaiak, adierazi du egun ezin dela abertzaleekin go- bernu itunik egin, proiektua «subiranotasunaren mamurantz» bideratzen duten bi- tartean. Buen PSE-EEko kar- gudunekin elkartu zen atzo Donostiako egoitzan, hau- teskunde programa zehazte- ko. PSE-EEk, bere progra- man, «Espainian autogober- natutako eta sozialki kohesionatutako Euskadi bat» bultzatuko duela adie- razi zuen. «Foru aldundi mu- nicipalista» defendatuko duela gaineratu zuen.

Nafarroako Legebiltzarreko hauteskundeetan izango da Alderdi Karlista

Alderdi Karlistak Jose Angel Perez Nieves aurkeztu du ze- rrendaburu Nafarroako Le- gebiltzarrerako datozen hau- teskundeetarako. Aurtengo hauteskundeetan Alderdi Karlistak aulki bat eskuratzeko eta, beraz, «ahots pro- pioa» izateko asmoa du, atzo Feliciano Velez alderdi ho- rretako Antolakuntza idaz- kariak adierazi zuenez. Ze- rrendan bigarrena Rodolfo Izal Elorz da, eta hirugarrena Maria Nieves Urrea Zabal. Bere alderdiaren helburua Nafarroaren «nortasunaren alde» lan egitea dela jakina- razi zuen Velezek.

Melillako PPko hamabost kidek beren burua eskaini dute EAEko zerrendak osatzeko

Maria San Gil Gipuzkoako PPko presidente eta Donos- tiako alkatetzarako hauta- gaiak eskerrak eman zizkien atzo Melillako PPko hama- bost kideri, EAEko udal hau- teskundeetarako PPren ze- rrendak osatzeko beren bu- rua eskaini dutelako. Maria San Gilek Melillako alderdi- kide horiekin afaldu zuen he- renegun, eta «elkartasuna» eskertu zien. Haren ustez, «oso zaila» izango da herri batzuetan EAEko PPko kide- en artean zerrendak osatzea. San Gilek adierazi zuenez, alderdi guztiak ez dira «bal- dintza berean» aurkeztuko hauteskundeetara.